

# AURKEZPENA

## Nortzuk gara?

Ibaizabal Ikastolako Goi Mailako Zikloko Haur Hezkuntzako ikasleak gara. Enpresa ikasgai, Canvas proiektuan landutako irizpideak jarraituz, proiektu bat sortzea eta aurrera eramatea erabaki dugu.



Gure taldean hainbat ideia proposatu ziren (baserri eskola, txikipark-a, guraso eta haurren harreman espazioa, hizkuntzaz jarduteko jolas espazioa, afektibitate espazioa..) baina ideia guzti horiek, ez gintuen pertsona moduan betetzen. Hortaz, azken ideia bezala errefuxiatuei laguntza eskaintzea aproposa zela iruditu zitzaigun. Hala ere, jolasaren, motibazioaren eta ekintza desberdinen bitartez, laguntza eskaintzea dugu helburu.

Proiektua aukeratzeko momentuan, enpresa honetan parte hartzen ditugun partaideen lanbide (begiraleak, integratzaileak, itzultzaileak eta zaintzaileak) eta gaitasunak (talde lana, bitartekaria, enpatikoa, ekintzailea, motibatzailea, errespetua..) kontuan hartu ditugu. Gainera, Xabi Aranburuk, lehen laguntzetako irakasleak, Open Armsen izan duen esperientzien artean, 10urte baino gutxiago dituzten haurrek haien buruaz beste egiten zituztela kontatu zigun. Horretan oinarrituta, haur horiek bizi esperantza ematera eta laguntzera bideratu genuen gure proiektua.

Laburbilduz, gizartean egoera hau ikusgai ez dela ikusita, gure proiektuaren bitartez, jendea kontzientziatzea eta egoera latzean dauden haurren beharrak betetzeko behar ditugun laguntzak eta baliabideak jasotzea espero dugu. Horretarako, gizartearen eta gure esku dago egoera honi buelta ematea eta aurre egitea.

